

## Araba mendiz mendi



Arabako txoko desberdinak  
08:00etan  
5€/irteera

**Vital Fundazioak** irteera gidatuen programa berri bat jarri du abian udaberri honetarako, jende guztiarentzat diseinatua. Lehenengo edizio honetan GR25 izango da (batez ere Arabako Lautadan). 12 etapa izango dira, maiatzetik urrira bitartean, guztiak larunbatean, adin-sorta zabaltzeko eta mendian modu erraz eta gidatuan hasi nahi duten baina astegunetan egin ezin duten pertsonengana iristeko.

### Informazioa

- **Ordua:** 08:00 a.m.
- **Irteera:** Arriagako autokarabanen aparkalekua (lehenengo irteera Olarizutik izango da).
- **Plazak:** 30 pertsona/irteera

Ibilbide guztiak mendiko gidari profesionalak prestatzen dituzte, eta bidezidorrak zailtasunaren arabera sailkatzen dira, baxuan, ertainean edo altuan.

ETAPA	DATA	KM	Desnibel +	Desnibel -	Zailtasuna
Etapa 1. Olarizu-Eguileta	Maiatzak 27	15km	370m	287m	Erdikoa
Etapa 2. Eguileta-Alangua	Ekainak 3	18km	479m	415m	Altua
Etapa 3. Alangua-Ilarduia	Ekainak 10	17km	575m	687m	Erdikoa
Etapa 4. Ilarduia-Zalduondo	Ekainak 17	15km	505m	488m	Erdikoa
Etapa 5. Zalduondo-Barria	Ekainak 24	13km	259m	269m	Erdikoa
Etapa 6. Barria-Marieta	Uztailak 1	16km	318m	399m	Erdikoa
Etapa 7. Marieta-Legutio	Uztailak 8	16km	580m	597m	Erdikoa
Etapa 8. Legutio-Etxaguen	Uztailak 15	14km	446m	351m	Erdikoa
Etapa 9. Etxaguen-Apodaka	Irailak 9	18km	515m	573m	Altua
Etapa 10. Apodaka-Tresponde	Irailak 16	19km	425m	454m	Altua
Etapa 11. Tresponde-Zumelzu	Urriak 7	13km	446m	301m	Erdikoa
Etapa 12. Zumelzu-Olarizu	Urriak 21	16km	484m	564m	Erdikoa

## Izen-ematea

Irteera bakoitzean izena emateak 5 €-ko prezioa du eta "irteerak" atalean egin ahal izango dira.